

# Aretxa gazeta

Aretxabaleta • 1997ko urriak 9 • 130. zka.



## Herriko etorkinak


Domingo Clemente: meningitisaren txertoa ■ San Migelak argazkitan ■ Aerobic-a kalean



euskara  
+ ikastolak



Euskararen aldeko Txartela








# Erosi edo ezagutzen duzu Extra egunkaria?

**Jose Angel Uribetxebarria**  
(Langilea)

Ez dut aukerarik izan. Agian aurrean ikusi ezkeru erosiko nuke. Nik egunero erosten dut egunkaria. Deba Garaiko kontuetaz informatzeko komunikabide asko dagoela uste dut.



**Mari Jose Fernandez**  
(Langilea)

Oraindik ez dut erosi. Publizitatea heldu zait etxera, baina ez dut Extra egunkaria ikusi. Bestela, egunero erosten dut egunkaria, bertako kronika irakurtzeko.



**Loli Mayoral**  
(Langilea)

Hemengo egunkariak bertako kronika ekartzen du eta hori irakurtzea gustatzen zait. Egunero erosten dut egunkaria, baina oraindik Extra ez dut ikusi.




**Alonso Davila**  
(Langilea)

Ez, ez dut erosi. Ez dut ohiturarik. El Diario Vasco egunkaria erosten dut. Berri denak etorri ez arren, kronikaren bidez informatzen naiz.



**Joxean Ballesteros**  
(Langabetua)

Bai, orain arteko argitalpenak erosi ditut. Gustatzen zait. Hemen inguruko informazioa du eta hemengo berrietaz jakinean egoteko modu egokia da.




**Ma Jesus Ortiz de Guzman**  
(Langilea)

Diario Vasco egunkaria erosteko ohitura daukagu. Ez dut oraindik Extra egunkaria erosi. Ez nago oso ondo informatuta.



Aretxabaletako  
Udalak diruz  
lagundutako  
aldizkaria



Kultura sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria

**Argitaratzailea:** Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Ana Eriz.  
**Erredakzio-kontseilua:** Ines Maria Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Mirari Altube, Irune Iturbe, Alberto Izagirre, Alberto Elkorobarrutia. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, Gorka Etxabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Joseba Lopez de Armentia, Josu Urkia, Arantazu Zuazabeitia, Inma Miguel, Loramendi E. E., kultura saila, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609  
Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.





### III. patxaran lehiaketa dela eta

Aurreko larunbatean, irailak 27, III. patxaran lehiaketa egin zen San Migel jaien barruan. Ekimen polita dela deritzot eta aurrerantzean ere organizatzen jarrai dezaten animatu gura ditut antolatzaileak.

Baina antolaketa hori hobetu guran, pare bat gauza aipatu nahi nuke.

Alde batetik, epaimahaiaren lana da kezkatzen nauen gauzetariko bat. Lehiakide asko izango zirelakoan -eta ez ziren gutxi izan, 23 oker ez banago-, dastatze eta epaiketa lana bi egunetan egitea pentsatu zen: lehenengoa 26an, ostiralean, afalostean (behar bezala, esango nuke), baina ez partaide guztienak epaitzeko, batzuenak baizik. Eta hemen aipatu behar da ostiralean herritarrek soilik izan zutela edari preziatua aurkezteko aukera. Bigarren dastaketa larunbat goizean egin zen, hamarretako orduan edo. Eta hemen nire zalantzak. Une egokia al da hori patxarana dastatzeko? Zergatik ez dastatu eta epaitu denak bazkalostean, larunbat goizean goizik etorri beharra ez dakit krudel samarra ez ote den. Pentsa, bezperan parranda latza eginda (andrea ez dadila entera!) eta sekulako untzearekin -berba jator hau gehiago erabili beharko genuke, beti "bixamona"rekin ibili barik- etorri behar nire ustez saritua izateko aukera gutxiago zuen patxarana ekartzera.

Eta edozein kasutan ere, pentsatzen dut kontu hauek guztiak (ez bakarrik botilak noiz entregatu behar diren) oinarrietan agertu behar direla. Ni, detaileak jakinda, beharbada ez nintzen aukeztuko. Baina tira!

Beste gauzatxo bat. Ez dut uste logikaren barruan sartzen denik gero epaitu behar duen batek patxarana nork entregatu duen ikustea. Hori ere hurrengorako zuzendu behar delakoan nago. Norbaitek orain artekoa

irakurri eta ondorioztatzen badu erresumindua nagoela, oker dagoela esango diot. Bestela, irakur ditzala azken hitzok.

Segidan esatera noiena gauza bitxixe eta arrarue bada be, saritue izen banintz, akaso inpugnau eingo nauen. "Hau bere onetik urtenda jak", esango dau batek baino gehixauk, baine niri parra, parra dust, gure auzokuek, zorionez, dana libre daukou eta. Besarkada bat atxabaltarroi.

**TXIPI ORMAETXEA.**

Loramendi elkarteak, Aretxabaletako herritarrei eskerrak eman gura dizkie jaietarako antolatutako ekintzetan izan duten parte hartze zabalarengatik. Bereziki Agirretarrak eskertu gura ditugu azken lau urtetan beraien lokala utzi izanagatik.

Datorren urtera begira edozein gomendio entzuteko prest gauzkazue.

**LORAMENDI EUSKERA ELKARTEA**



# LASAGABASTER

## Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE  
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

## ERREKABARREN MERKATAL ZENTRUA

- JUANTXO URDAITEGIA 79 75 42
- MARI KARMEN OINETAKO DENDA 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINDEGIA 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 79 31 59
- ARAMAIO OKINDEGIA 79 64 87
- LEINTZ-ROSI 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 79 96 43



## Ihardun multimedia enpresak aurkezpena egin zuen Gatzagan



*Urrutiko hezkuntzarako errekurtsoen produkzioa, heziketa eta komunikazioa lantzen ditu ihardun enpresak, bideoa eta CDroma erabiliz.*

Ihardun multimedia enpresak, aurkezpena egin zuen irailaren 29an Gatzagan. Eskoriatzako Irakasle eskolan sorrera izan duen enpresa honek urrutiko hezkuntzarako errekurtsoen produkzioa, heziketa eta komunikazioa lantzen ditu, bideoa eta CDroma moduko materialeak erabiliz.

Aurkezpena Luis Maria Alvarez enpresako gerenteak egin zuen, Jesus Garmendia (Irakasle Eskola), Jose Antonio Iregi, (Alecop) eta Alberto Oriberekin (Marianistas Azterlan) batera.

Komunikabideetako eta gaia-ekin interesatutako lagun ugari bildu zen aurkezpenean. Aurkezpenak hainbat zati izan zuen: alde batetik, aurreikusita zegoen moduan, Madrilgo UNEDeko irakasleekin eta Australiako Perth unibertsitateaz zuzenean hitzegin zen. Ondoren, "Mano con mano. Mente con mente" Arrasateko kooperatiben sorrera eta garapena

erakusten zuen bideoa ikusteko aukera izan zuten bertan bildutakoek. Honekin batera, Antonio Cancelo, MCCko lehendakariak, kooperatiben inguruan berba egin zuen: honek jasan duen garapena, aldaketetara egokitzeko izan duen eta jasaten ari den beharra, etabar.

Jesus Garmendiak, enpresa zoriondu zuen Irakasle eskolako Teknologia berrien sailean azken 12 urteetan egindako lana eskertuz.

Bukatzeko, Eugenio Otxoa, Gatzagako alkateak, poza erakutsi zuen Ihardun moduko enpresa bat Gatzagan kokatu delako, azken hau, Gatzaga azken urteetan jasaten ari den garapen planaren parte izanik.

Bertan bildutakoek Ihardun enpresaren instalazio berriak ikusteko aukera izan zuten. Baita Ihardun multimediak orain artean burututako lan batzuk ere.

## Jakion elkarte martxan da Gatzagan

Urriaren 3an Jakion S.L. nekazaritzako produktuen transformazio zentroa eta Gaztainuzketako baserri ostatuaren inaugurazio ekitaldia egin zen Gatzagan.

Jakion enpresak nekazaritzako produktuak erosi eta prozesatu, baserriko frutak eta barazkiak, batez ere, Deba Garaiko baserriaren indarberritze ekonomikoa du helburu.

Bailarako hogeita hamarren bat lagunek, Deba Garaiko mendi nekazaritzako elkarteak eta Leintz Gatzagako Udalak bultzatutako elkarte da. Zentru honen bidez, baserrietako zenbait produktu (mermeladak, barazkiak, e.a.) elaboratu nahi dituzten baserriarrei azpiegitura eman nahi zaie.

Jakion produktua, artesanalki egindako produktua izango da, kalitatezkoa eta merkatuan lehiatu nahi duena.

## Gaztainuzketako mendi etxeak

Iaztik Gaztainuzketako mendi etxeak martxan egon arren, urriaren 3an egin zen inaugurazio ekitaldia. Inguruan jasotako ostatu eskaerak eta eskaintza txikiak Leintz Gatzaga nekazal alojamentuen proiektua garatzera bultzatu zuen. Gaztainuzketako etxeek 34 alojamentu eskaintzen dituzte, besteak beste, logela, sukaldea, sala, bainugela...eta beheko sua duten egurrezko etxeak dira. Leintz Gatzagaren garapen planaren ekimenak dira aurrean aipatutako biak.

*kindegia - Gozotegia*

**Aretxabaleta**  
Mitarte, 1-  
Tfnoa: 77 00 81  
Aretxabaleta  
**Bertako okina**

**ZARAIA  
TABERNA**

Goizeko 5,30etatik  
zure zerbitzuan

**MANTEKA ANAIK**

**ESKORIATZA**  
Bazkari  
eta  
afariak

Tfno 714345

**ERRETEGIA**

**MENDIOLA**  
Astelehenetan itxita  
**ESKORIATZA**



## 65 urtetik gorakoei zuzendutako gripearen aurkako kanpaina martxan da



*Irailaren 15etik urriaren 30era luzatuko da gripearen aurkako kanpaina.*

### Gripearen aurkako txertoa

Irailaren 15etik urriaren 30era, 65 urtetik gorakoei zuzendutako gripearen aurkako kanpaina martxan da. 65 urtetik beherako kasuan, gaixotasun kronikoren bat izanez gero ere txertoa jartzea gomendatzen zaie: gibelego gaixotasunak, bihotzekoak... Txertoa hartzen dutenen kopurua handia da eta gaixotasun larriak gerta ez daitezela lagungarria gertatzen da.

### Mamografiak 50 urtetik gorako emakumeetan

Eusko Jaurlaritzak 50etik-65 urtera bitarteko emakumei zuzendutako mamografia programa jarri du martxan. Azterketa hauei bularreko "screening"-a deitzen zaie eta Eskualdeko ospitalean egiten dira.

Bularreko minbiziaren aurrean prebentzioa da har daitekeen neurriarik onena. Bularreko minbizia ahalik eta azkarren diagnostikatu ahal izateko.

### Aretxagazeta Interneten

Saretxo elkarteari esker, aurrerantzean, Aretxagazetak Interneten lekua izango du. Aretxagazetara informazioa bidali edo aldizkaria irakurtzeko aukera egongo da. Informazioa bidaltzeko E-Mail-a ondorengo da: aretxagazeta@saretxo.es. Alea irakurtzeko: www.saretxo.es/aretxagazeta. Eskerrikasko Saretxo elkarteari Aretxagazetari Interneten leku bat uzteagatik.

### Kiroletxean ordutegi berria

Urriatik aurrera ordutegi berria dago kiroletxean. Ordutegi berriak bi aldaketa izango ditu. Alde batetik, astegunetan arratsaldeko ordu 2,30etan zabalduko da, 3etan zabaldu beharrean. Bestetik, domeketan lehenago itxiko da kiroletxea, 12etan hain zuzen ere. Orain artean ordu 2etan isten zen domeketan.

### Extra: Deba Garaiko kazeta

Egunkari moduan kaleratu zen irailaren 19an, baina infraestruturaz arazo batzuk zirela eta astebeteko geldialdia izan zuen. Urriaren ostera ere kaleratzen hasi da, baina kasu honetan Deba Garaiko kazeta moduan. Martitzen, eguen eta zapatuetan izango da kioskoetan salgai. Aurrera begira, Extrako iturriek adierazi dutenez, egunkaria izatera iritsi nahi da, behin aldizkariak martxa hartu eta antolaketa hobea izaten duenean. 3000 ale inguru kaleratzen dira eta 50 pezetako prezioan saltzen da ale bakoitza. Kioskoetako saltzaileen esanetan denbora gutxi pasatu da zein harrera izan duen garbi azaltzeko.

### Partaidetza eta animazio handia jubilatuen egunean

Joan den zapatuan jubilatuen eguna ospatu zen. Basotxon salda hartu eta parrokiaren meza entzun ondoren, 280 jubilatutako inguru elkartu ziren kiroletxean bazkaltzera.

Bazkalostean Ludi Berri taldearen dantzaldiarekin batera hainbat sari zozketatu zen. Horien artean garrantzitsuenak honako hauek izan ziren. Zarautzera astebukaera ordaindua: Teresa Pujol;

Fagorreko lote nagusia: Resu Aretxaga; Fagorreko lote txikia: Leonor Sanchez; telebista: Joxe de la Torre; Eroskik emandako 25.000 pezetako balea: Angela Horrillo eta bi pertsonendako afaria: Julian Uriartentzat izan zen.

Opari hauez gain, emakumeek karameluz betetako kaxa dotore bana jaso zuten. Gizonezkoek, berriz, lupa bana.

EGUZKI GRAF  
inprimategia

ARETXABAILETA

Industrialdea F-0-4  
Tfnoa: 791841  
Faxa: 792941

URBALTZ  
TABERNA

Mitarte, 21 behea  
Tfnoa.: 79 79 79  
ARETXABAILETA



## Gaztetxoek akordeoi orkestrak Irun Hiria Sarian parte hartuko du

### □ Urria bukaeran Estrasburgora abiatuko dira herriko bi akordeoi orkestrak

Gaztetxoek akordeoi orkestrak urriaren 9, 10, 11 eta 12 egunetan ospatuko den Akordeoi Orkestren Irun Hiria saria txapelketan parte hartuko du. Urriaren 11an egingo dute euren saioa. Goizean Amaia kultur aretoan harrera ekitaldia egingo zaie talde guztiei eta arratsaldeko 4etatik aurrera joko dute. Iaz lehen saria irabazi zuten txapelketa honetan eta aurten ere maila ona erakutsiko dutela espero da.

#### Akordeoi orkestrak Estrasburgora

Urriaren 31tik azaroaren 6ra bitartean Frantziako Estrasburgo

hirira abiatuko dira herriko bi akordeoi orkestrak. Bischwiller herrian ospatuko den "17. Grand prix international le l'accordeon" txapelketan parte hartuko dute. Txapelketa azaroaren 2an izango da, eta hurrengo bi egunetan Parisera egingo dute bisita.

Azken urtebete honetan, txapelketan parte hartzea pentsatu zutenetik, dirua batzeko hainbat ekintza egin dute akordeoi orkestrakoek, hor izan ditugu herriko festa gehienetan euren txosnarekin, adibidez. Modu honetan, bi milioiko aurrekontua duen irteera honetarako diru dexente ateratu egin dute.

## Durana kaleko ur azpiko kolektorearen garbiketa

Azken bi aste hauetan, Larrinbetik Errekabarrenera herria zeharkatzen duen ur kolektorean garbiketa lanak egin dira. Basabe bidea eta Durana kaleko zati batean burutu dira aipatutako lanak. Zati horretan, kolektorea lurrez beteta zegoen eta urak oztopo haundiak zituen pasatzeko. Garbitze lanetan, lur kantitate haundiak ateratu dira. Aurrean aipatutako moduan, kolektoreak Larrinbetik datorren errekatxoko ura jaso eta Errekabarrenen Deba errekarara isurtzen du.

## Peoi ehorzle eta hirigintz teknikari lanpostuak

Udalak peoi ehorzle eta hirigintz teknikari lanpostuak betetzeko bi plaza ateratu ditu. Biak plaza finkoak izango dira, lehiaketa- oposaketa bidez aukeratuko direnak.

Peoi lurperatzailearen lanpostua uztailan argitaratu bazen ere, oinarriak aldatu egin dira eta epe berri bat zabaldu da instantziak auzeratzeko. Kasu honetan eskolaritate titulua izatea eskatzen da. Hirigintz teknikari lanpostuari dagokionez, ingeniari tekniko edo arkitekto tekniko titulua eskatzen dira.

Bi kasuetan oinarriak jasotzeko eta instantziak auzeratzeko udaletxetik pasatu beharko da. Instantziak aurkezteko epea bi kasuetan urriaren 20artekoa da.



### 107 lagunek euren burua erruduntzat jo zuen

Urriaren 3an, udaletxe aurrean hainbat lagun batu zen, "Demokrazia Euskal Herriarentzat" lepamean euren burua erruduntzat jo eta HBko mahaikideen aurkako epaiketa salatzeko. Honekin batera, 107 lagunengatik autoinkulpazioak aurkeztu zitzaizkion udaletxeko pake epaileari.

### OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tfnoa: 79 98 74  
ARETXABAETA

### Iber

#### Paperdenda

Otalora, 2  
Tfnoa: 79 79 24

### Martín

RELOJERIA • BITXITEGIA

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16  
Tfnoa: 79 01 72

### INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



Mitarte, 23 Aretxabaleta  
Tfnoa: 79 96 66  
Fax: 77 10 33



# EUSKAL HERRIKO FAUNA ETA FLORA (2)

## Intsektu paleopteroak

Gaur egun bizirik dauden artean historia luzeena duten intsektuez ari gara gaurkoan, izan ere, Dinosaurioek beren eboluzioa hasi zuten garai hartatik oso gutxira agertu baitziren lurlean lehen paleopteroak.

Jadanik fosil diren trilobiteekin batera mundu osoa kolonizatzen heldu ziren. Orain askoz ere ale gutxiago existitzen dira, hauek ere intsektu modernoagoetara eboluzionatu baitzuten.


**A**nimalia hauen berezitasun nagusia beren hegaletan datza, zeren eta izenak isladatzen duen bezala oso primitiboak baitituzte (Paleo-zaharra, Ptero-hegala). Membranotsuak dira, nerbiazio transbertsal eta bertikalez sano ornituak. Hain konplexuak direnez, ezin dituzte bizkarraldean gorde eta horregatik bertikalki tolestu beharra dauzkate pausatzen direnean.

Bestalde ez dute metamorfosi tipikoa burutzen. Uretan bizi den larbak muda ugari jasango du pausoz pauso helduaren antza hartu arte. Azkenengo mudan brankiak galdu eta trakea sistema garatuko du aire zabalean bizi ahal izateko.

Gaur egun bi ordenek osatzen dute talde hau:

**Odonatuak** (munduan zehar 2500 espezie):

Hagindunak esan nahi du, izan ere larbak erreketako harrapakari nagusi bihurtu dira beren aho pieza garatuari esker (labium). Udaberri erdi-bukaeran helduak azalduko dira eta beren kolore-metaliko biziak dantzatuko dituzte gure herriko zelaietan. Sorginorratz eta txitxiburduntziak dira odonaturik ezagunenak. Gure kondaira eta ipuinen mundu magikoak ere izan du animalion berri.



Baetis generoko efemeropteroa

**Efemeropteroak** (munduan zehar 2000 espezie):

Izenak helduaren bizitza laburrari (efimeroari) kasu egiten dio. Larba herbiborora uretan biziko da eta hainbat muda pasa ondoren, heldua azalduko zaigu bazterretan. Larbak hilabeteak eta batzutan urtea ere iraun dezakeen arren, helduaren bizitza ordu batzuetara edo kasurik onenean egun batzuetara mugatuko da, justu ugalketa burutu eta emeak arraultzeak ipintzeko lain.

Efemeropteroen larbak ibaien kutsadura maila aztertzekeo bioindikatzailerik gisa sarri erabili dira, ur garbierikiko duten zaletasunari esker.

Mikel Arroiabe

## EXTRA

*Deba Garaiko kazeta-Periódico del Alto Deba*

Adi, Aretxabaleta:

Urriko hilabete honetan, Deba Garaiko EXTRA gehigarria, **astean hiru aldiz** (astearte, ostegun eta larunbatetan) argitaratuko da. Prezioa 50 pezetatakoa izango da eta goizean goizetik kiosko guztietan egongo da salgai.

EXTRAren gure eskualdeko bederatzi herrietako albisteak eta informazio zehatza jasoko duzu: **Arrasate, Bergara, Oñati, Aretxabaleta, Eskoriatza, Antzuola, Elgeta, Aramaixo eta Gatzaga.**

Herrietako kronikak, erreportai interesgarriak, iritzizko artikuluak, kultur eta kirol agenda, enplegu eskaintzak, aukerak, eta zure inguruan gertatzen denari buruzko beste hainbat albiste.

Gogoratu, hilabete honetan, **astearte, ostegun eta larunbatero** EXTRA kioskoetan aurkituko duzu.

## IZOTZ Taberna

Mitarte, 16 • Tfnoa: 79 73 65  
Aretxabaleta

ARGAZKI

*UrKiola*

Tfnoa: 79 39 20  
ARETXABALETA





# Clemente Domingo

## “18 hilabetetatik 20 urtera bitarteko neska-mutiko gehienek hartu dute meningitisaren aurkako txertoa”

Meningitisaren txertoari eta kanpainari buruz asko berba egin da azken hilabeteotan. Komunikabideetan pil-pilean dagoen gaia da. Iaztik C motako meningitis kasuak gehitu egin direnez, Osakidetzak Euskal Autonomi Elkarteke gazteen artean txertoa jartzea erabaki du. Kanpaina irailaren 15etik urriaren 30a arte egongo da martxan.


Clemente Domingo osasun zentruko praktikanteaz gai honen inguruan berba egiteko aukera izan dugu. Bere esanetan herriko eta inguruko eskoletako jende gehienak hartu du

Meningitisa infekzio bidezko gaixotasuna da eta birusek edo bakteriek sortzen dute. Bakteriek sortutakoa denean, drogen bidez sendatzen da, baina birusek sortua denean, drogek ez dute eraginik eta gaixoa bere kabuz sendatu behar da.

Hainbat meningitis mota dago, A, B eta C dira garrantzitsuenak. Azken boladan C motakoak gehitu direla adierazten du Clemente osasun zentruko praktikanteak. “Ez da larritzeko arazoa, kasu isolatuak eman dira, baina neurriak hartzea komeni da, izan ere meningitisak heriotza eragin dezake”.

Hau ikusita eta meningitis kasu gehiago prebenitzeko asmoz, Osakidetzak meningitisaren aurkako kanpaina jarri du martxan, 18 hilabetetatik 20 urtera bitarteko pertsonetan. Kanpaina irailaren 15ean hasi zen eta urriaren 30a arte luzatuko da. Txertatzea ikastetxeetan eta anbulategian bertan egiten ari da. Clementeren esanetan, eskoletako jende kopuru gehiena txertatu da. Hemengo eskoletan esaterako, Santa Rita ikastetxean, Kurtzebarri eskolan,

**“Ez da larritzeko arazoa, kasu isolatuak eman dira baina neurriak hartzea komeni da”**



Clemente Domingo praktikantea

Almenen eta Pausokan 1763 ume-tatik 1617k eskolan jaso dute txertoa. Azken hauek gurasoen eta tutoreen baimena beharrezkoa izan dute. Beste 106k, berriz, anbulategian bertan jaso du.

Txertoaren eraginkortasuna ez da %100koa, horregatik “erne egotea komeni da”. Gaixotasun honen sintomak, burukomina, sukarra eta aza-lean sortzen diren mantxa antzekoak dira. “Ez da larritzea komeni, baina susmagarriak diren sintomen aurrean medikuarengana joatea onena”.

Guzti hau esanda, meningitis kasu berriak eragozteko, txertoa jartzea komenigarria da. Gaisotasuna estularen eta txistuaren bidez kutsatzen da. Zenbat eta adin txikiagoa, orduan eta gaisotasuna hartzeko aukera gehiago dago eta sendagileek ume txikietan, batez ere, txertoa jartzea gomendatzen dute.

Herriko eskoletan txertoa jarri da, baina oraindik hartu ez duenak anbulategian txanda hartu beharko du hartu nahi izanez gero, epea urriaren 30a artekoa da.



### TABERNA-BERRI JATETXEA

Durana, 26  
Tfnoa: 79 20 67  
ARETXABALETAK

### ARETXABALETAK ITURGINTZA

Durana, 16  
Tfnoa: 79 17 53  
ARETXABALETAK

### Maritxu Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24  
Tfnoa: 79 23 53  
ARETXABALETAK



# Herriko etorkinak

**Etorkin kopuru haundiena Gaztela eta Leon, Extremadura eta Galiziako da**

**X**X. mendeko ateetan gaudenean, Aretxabaletak ia 6.000 pertsonako biztanleria du. Horien artean gehienak bertan jaiotakoak badira ere, etorkinak ere asko dira: zifretan 1.333 hain zuzen ere. Gaurko honetan kanpotik etorritako bizilagunen azterketa egin dugu. Nongoak dira gure herrian bizi diren etorkinak? Galdera horri eta gaiaz lotutako beste hainbat ekarri ditugu azalera oraingo honetan.



Extremeñoek "Migas extremeñas" eguna ospatu zuten iaz

Ondoko laukiko zenbaki hauen aurrean, eta irakurketa ahal den hotzera egiteko, gutxiengo azalpen batzuk egin behar dira:

- Datuak aurtengo ekainekoak dira. Gerta daiteke banakako gora behera batzuk egotea gaur egun.

- Ekainaren 24an, Aretxabaletan 5.972 biztanle zeuden. Hauetatik 4.639 Hego Euskal Herrian jaiotakoak, 1.293 Estatuko beste Elkarte Autonomo batzuetan, eta 40 pertsona Estatutik kanpo jaiotakoak dira; hauen artean, bertakoan seme-alaba batzuk.

- Etorkin gehienak 1936ko Gerra ondoren heldutakoak dira, eta batez ere 60. hamarkadan, nekazal mundutik, industri giroko lurraldeetara etorriaz, baldintza ekonomikoak eraginda.

- 1.333 etorkinen artean, ez dago alde haundirik gizon eta emakumezkoen artean. 671 gizonezko eta 662 emakumezko.

- Ikusten denez, komunitate kopurutsuenak, Gaztela eta Leon, Extremadura eta Galizia dira; baina badaude euren arteko berezitasun batzuk.

- Gaztela eta Leon Elkarte Autonomoan bi probintzi dira nagusi; bata Zamora (180 pertsona) eta bestea Salamanca (145 pertsona). Zamorakoak bi herritakoak dira nagusiki, Villaralbo eta Morales de Torokoak. Salamancakoak, berriz, sakabanatuago agertzen dira.

- Extremaduratik etorritakoen artean, kopuru berdintsu xamarra da Badajozetik eta Caceresetik etorritakoena. Badajozekoak La Serena ingurutik etorritakoak badira, Cacereseakoak, berriz, sakabanatuagoak agertzen dira.

- Galiziatik Orense probintziatik etorritakoak ere aipatzekoak dira ia ia 100 direlako eta denak, edo gehienak Bandekoak gainera.

- Estatuko probintzia gehienek dituzte euren ordezkariak gure herrian, Toledo, Murtzia, Huelva, Castellon, Mallorca eta Teruelek ezik.

- Estatutik kanpo etorritakoen artean, Afrika, Europa, Ipar-Hego eta Ertamerikarrak daude gure artean.

## Aretxabaletako etorkinak

Hego Euskal Herrian jaiotakoak.....	4.693
Espanian jaiotakoak	
- Gaztela eta Leon.....	581
- Extremadura.....	337
- Galizia.....	124
- Andaluzia.....	97
- Errioxa.....	54
- Gaztela-Mantxa.....	23
- Kantabria.....	15
- Aragoi.....	11
- Madril.....	11
- Katalunia.....	8
- Valentzia.....	5
- Asturias .....	5
- Kanariak.....	2
- Balearrak.....	0
- Murtzia.....	0
Guztira.....	1.293
Estatutik kanpo.....	40
Aretxabaletako biztanleak.....	5.972



**Aurreko orrian irakurri dezakegun moduan gure herrian asko dira kanpotik etorritakoak. Gaurkoan Badajoztik etorritako Pedro Mateorekin eta Zamoran jaiotako Bittori Lopezekin egon gara.**

**Pedro Mateo**



Badajoz-etik etorri zen gure beste protagonista hau; Valle de la Serena izeneko herritik. 1957. urtean hurbildu zen Euskal Herrira.

On Pedro, Aretxabaletara etorri zen garaiko Valle de la Serena herria nekazal munduan murgilduta zegoen, baina lurra gutxi batzuren eskuetan zegoen. Hortik aparte beste aberastasun bat ere bazuen herriak: Wolfram meategiak. Bera bertan lana eginikoa da. Igeltsero ere saiatu zen, baita txofer ere.

Kamioiarekin zebilela, Aretxabaletako plaza egiten ikusi zuen, bertan extremeño ugari zebiltzala konturatuz.

Gure gizona, gerra galdu zuten horietakoa dugu. "Juventudes Libertarias" Bataloian parte hartu zuen eta askatasuna eta Errepublikaren alde borrokatzeagatik makinatxo bat jipoi eta zigor jasotakoa da, Batallon de Trabajadores-etan.

Bere gomutako Aretxabaleta ere oso txikia da; oraingoa askoz ere gehiago gustatzen zaio. Bere esanetan Gipuzkoako herririk polit eta onena da. Sarri joaten da Valle de la Serena-ra, baina bihotza zatituta du; extremeño-euskalduntzat du bere burua.

Bittori Lopez, Zamorakoa da, Morales de Toro izeneko herrikoa hain zuzen ere. 1953. urtean, 16 urte zituela, Aretxabaletara etorri zen; bertan jadanik bere ahizpak ziharduten lanean, eta bera ere asmo berarekin azaldu zitzaigun. Heldu eta hurrengo egunean Beroako sukaldean ekin zion lanari.

Bere gomutako Aretxabaleta oso txikia zen. Erdiko kale nagusia, hiruzpalau kantoitxorekin, eta goi aldean San Martin eta Villa Genobebako etxeak. Trenaz oso ondo gogoratzen da; Arrasatera eta Gasteizera joateko ebalten baizuten. Domeketako dantza saioak ere ez ditu ahaztu. Bera etorri aurretik jadanik martxan zeuden lantegi batzuk ere: Azbe, Ilargi, Beroa...

Orduko eta gaurko Aretxabaletaz hitzegiterakoan, zera esan digu: desberdinak izan arren, lehengoak beste erakarpen bat zeukala.

Oraindik Morales de Toro-ra joaten da; hura ere asko aldatu ei da. Nekazaritza zen eta da bertako ogibide nagusia (ardo famatua dute). Aretxabaletan oso pozik bizi da eta ez litzateke Morales-era itzuliko, baina ezin dira sustarrak ahaztu.



**Bittori Lopez**

Aitor Antxia Leturia

**G U R E A**

*taberna  
jatetxea*

Durana kalea  
Tfnoa: 79 20 64

**IBARRA  
ESTANKOA**



Tabakoa eta  
ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77

**PAGALDAI  
Opari denda**

Durana, 33 ☎ 79 10 14  
ARETXABALETA

**IRIARTE**

*Umeen  
denda*



Durana, 8 Aretxabaleta  
Tfnoa: 79 10 96



# San Migelak

*euskal giroa bete-betean*



Euskal giro jatorra nagusitu da aurtengo San Migel jaietan. Zapatua izan zen egunik herrikoiena, jendea batetik bestera baserriar jantzita ageri zen, sagardoa dastatu, taloa eta txorizoa jan, ferixa ikusi... Guzti hau baturik egun zoragarria izan zen festa giroan ospatzeko.







**Erraldoi eta buruhaundiak akordeoi orkestrarekin.**  
Normalean txistulariek eta trikitilariak lagunduta atera izan dira erraldoi eta buruhaundiak. Baina San Migel jaiak ezin hobeto hasteko aurtengo kalejira akordeoi orkestrak zuzendu zuen.

**Produktu biologikoen ferixan 17 postu.**

Kalabaza eta pepino erraldoiak eta mota guztietako ortuko generoa ikusteko aukera izan genuen udaletxeko kontsumo sailak antolatutako produktu biologikoen 3. edizioan. Kurtzebarri eskolakoek ere, beren lekutxoak izan zuten beraien ortuan lantzen ari diren generoa erakustera emateko.



**Plazako arkupeak artisaupeaz beteta.**

27 artisau desberdinen postuek jende asko erakarri zuten plazara. Ehuna, artilea, buztina, harria, intxaur hezurra... eta beste makina bat artisautza lan ikusgai egon zen.

**BASABE**  
**JATETXEA**  
Basabe bidea z/g  
Tfnoa: 79 91 84  
ARETXABALETA

**Pelikularik hoberenak**  
**DON**  
**BIDEO**  
Lezama Merkatal zentrua  
ARETXABALETA

**MEMESA S.L.**  
**Industriaren alde**  
Santa Kurtz, 25-27  
Tfnoa: 77 11 75  
ARETXABALETA

**JOSU**  
**HARATEGIA**  
Urdaitegia-Gozotegia  
kroasantegia  
Janari prestatuak  
Mitarte, 1 ☎ 77 03 08





## Astoak estimazio haundia baina jaberik ez.

“Astotxoa, gure astotxoa...” dio abesti batek, baina astotxoak ez du oraindik jaberik. Ez da irabazlea azaldu, beraz, auskalo astotxoaz zer egingo duten.



## Bazkarian ia 400 lagun

Burua eta gorputza ondo berotuta bazkaldtu zuten talde antimilitaristak antolatutako bazkarian elkartu ziren ia 400 lagunek. Aurten zozketatutako saria Edorta Antxiarentzat izan zen. Sari bitxia: saku bat patata. Aurtengo neguan patata jaten pasatu beharko dute etxean.

**LASA**  
**AGUILERA**  
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3  
☎ 79 29 26

BERALAN  
**B**

**KRISTALDEGIA**

Loramendi 10 ☎ 79 81 78  
ARETXABALETA

**Artano**  
**Taberna**

Herriko Plaza  
ARETXABALETA

**MIKELOS**

Moda  
Guztia Zuretzat

Iparragirre 3 ☎ 79 36 67  
ARETXABALETA





### Joteroak eta puroa ahoan.

Ez ziren profesionalak baina jotak kantatzen trebeak zirela erakutsi zuten Nafarroa aldetik hurbildu ziren lagunek. Beste batzuk puroa ahoan zutela adi adi egon ziren begira. Ikusi bestela argazkiko bi gizonak.

### Beinke-Loramendi dantzan plaza gainezka.

Halaxe da bai, non sartu ez zekitela ibili ziren Beinke-Loramendi dantza herrikoia dantzatu zutenak. Datorren urterako borobil haundiagoa egin beharko da.



### Ramon Erañari omenaldi beroa.

Ramon Erañak merezitako agurra jaso zuen herritarren eskutik. Dantza taldean egindako lana eskertu genion guztiok. Jokin Bengoa eta Aintzane Aizpuruak agurra dantzatu zioten. Jose Angel Lazkanoren eskutik blusa jaso zuen eta Ion Sarasuak denok hunkitu gintuen bertsoa bota zion. Zorionak.



**BP** Amaia-Berri, S.L.  
**Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia**  
 Otalora, 18 behea Tfno-Faxa: 77 06 49  
 ARETXABAETA

BITXITEGIA  
**MIREN & ZURIÑE**  
 BITXIEN DISEINUA  
 BITXIEN-KONPONKETA  
 Otalora kalea  
 Eliza aurrealdean  
 Tfnoa: 77 13 57

**ENBOR**  
 Eloy Borgas  
 Iglesias  
 • Sukalde muntatzailea  
 • Aroztegia orokorrean  
 Santa Kurtz, 24  
 Aretxabaleta



## Piraguismoa hilabete batzutan bakarrik praktikatu ahal izango da Urkulun



*Urriaren leian udaletxean izan zen bileran 20 bat lagun elkartu ziren Urkulun piraguismo praktikekin zer egin erabakitzeko.*

Maiatzean Murruxio M. E. ko piraguismo sailak Gipuzkoako ur kontsorzioari eginiko eskaeran Urkuluko urak piraguismoarako erabiltzeko oniritzia jaso zuen. Kirol hau urte guztian zehar praktikatzeko aukera eman zion kontsozioak.

Arēttxabaletako udalak eta Foru Aldundiak, bestalde, Urkuluko urtegian biltzen den hegazti kopurua ikusita, eta piraguismoaren praktikak hauengan eragin dezakeen kaltea kontutan harturik, Urkulun piraguismoa ez egiteko eskatu dute.

Era berean, parke natural bat egiteko asmoa ere badago, Otzaurtetik Arlabaneraino joango litzatekeena, eta Urkulu eta ingurua ere plan horretan sartzen dira.

Proiektu berri hau ezagutzeko eta Urkulun piraguismoarekin zer gertatuko zen erabakitzeko, 20 bat lagun elkartu ziren urriaren leian udaletxean.

Batzarreen Foru Aldundiko kide bat, Imanol Artola basozaina eta udaletxeko zinegotzia den Jesus Kortabarria elkartu ziren, piraguismo

taldeko hainbat kiderekin batera.

Foru Aldundiak bere aldetik, Urkuluko urtegia txikia zela adierazi zuen eta bertan danondako lekua ez zegoela. "Urkulun dauden hegazti kopurua eta aberastasuna kontutan izanik, lehenengo txoriak babestu beharra dago. Piragua bakarria nahikoa da txoriak izutzeko", uretan ibiltzea ez dela onartuko gaineratu zuen.

Piraguismo taldekoak ados azaldu ziren txoriak babesteak duen garrantzia azpimarratzean, baina kirola praktikatzeko aukera guztiz ez kentzea eta akordio batera heltzea eskatu zuten. Euren iritzian, piraguismoak ez zuela txoriengan kalterik egiten ere gehitu zuten.

Bi aldeak akordio batera heltzen saiatu ziren. Hasiera batean urte osorako debekua jartzeko asmoa baldin bazuten ere, azkenean uda sasoiaren libre uztea erabaki zen, hegaztiei begira hori baita sasoirik aproposena. Beti ere, hegaztiak babestuz eta kalterik ez eginez jokatu beharko da.

## J.R. Arana Memoriala gabonetan egingo da

Aurreko urteetan Juan Ramon Arana Memoriala urrian ospatu bada ere, aurten lehenengo aldiz gabonetan egingo da.

Abenduaren 27, 28 eta 29an ospatuko da Almenen, Deba Garaiko eskolarteko olinpiada eginez. Abenduaren 27an, bai gizonezko eta emakumezkoen futbol, eskubaloia eta saskibaloia partiduak jokatuko dira, guztiak kadete mailan. Domekan, infantil eta kadete mailako krossa burutuko da Almenen. Azkenik abenduaren 29an, partiduetako finalak jokatuko dira.


Orain artean, egun bakar batean eta maila altuetako kirolariekin ospatu izan da J.R. Arana memoriala. Antolatzaileek adierazi digutenez, hemendik aurrera ospakizunak Almenen egingo dira eta kirolari gazteagoekin.

## Pelotariak elkarte arteko pelota torneoan buru belarri

Iturrigorri frontoitik pasatzerakoan sarri ikusten ditugu pelota partiduak. Momentu honetan Gipuzkoa mailako elkarte arteko pelota torneoak jokatzen ari dira herriko pelotariak. Irailean hasita domekero normalean bai etxean eta bai kanpoan izaten dituzte norgehiagokak. Herriko bost pareja ditugu torneoan: junior, senior eta kadete mailako pareja bana eta bi jubenil.

**Bedarreta**  
taberna

Otalora, 19  
Tfnoa: 79 20 89



**ARGI-PLASTIC**

Leihoak egiten dira

Zigarrola, 1 8. pabiloia  
ARRASATE Tfnoa: 77 11 30

**Matikua**  
jatetxea

Bertako mortzilak eta txorizoak

Eguazten arratsaldetan itxita  
Azatza auzoa  
ARETXABALETA



## Joxemi Elizburuk Alegian garaipena lortu arren ez da Mundialean egongo


Joxemi Elizburuk urriaren leian, Alegian burututako Mundial aurreko erlojuz kontrako proban garaipena lortu arren, ez du Mundialean parte hartzeko aukerarik izango.

Mundialeko erlojuz kontrako probarako, bi leku zeuden 23 urtez azpiko kategorian. Itxura baten, bi postuetatik bat Joxemik bete behar zuen baina Rodrighez Magrok ez du selekziorako aukeratu. Azken honek, Alberto Martinez (Kaiku) eta Aitor Gonzalez (Caja Rural) txirrindulariak aurkeratu ditu Mundiale-rako.

Alegiko proban, Joxemik 48 ehuneneko aldea atera zion Alberto Martinezi. Alberto Gonzalez, berriz, irabazlearengatik 48 segundutara sartu zen.

Joxemik, Euskadiko 23 urtez azpiko erlojuz kontrako aurtengo txapeldunak, 48,649 Km/orduko abiadura burutu zuen proba, kontutan izan behar da ibilbideak Altzoko bi Km.tako igoera zuela. Beraz, bikain ibili zela esan beharra dago.

Momentu honetan, neguko entrenamentua hasi aurretik, 20 egunetako oporretan dago Joxemi.



Joxemi Elizburu 23 urtez azpiko, erlojuz kontrako Euskadiko txapelduna da

## Aerobic-a kalean

Azken bi asteetan kalean egin behar izan dituzte aerobic-eko klaseak. Lokal arazoak direla eta udaletxearekin konpondu ezinean dabilta.

Goizeko klaseak musika eskolan ematen dira eta hor ez dago arazorik. Orain hilabete batzuk, berriz, Udalak Murubideko lokala hornitu zuen, aerobic eta yoga moduko iharduere-tarako. Goizetan musika eskolan eta arratsaldetan Murubideko lokalean ematen hasi ziren klaseak. Arazoak ordea ez ziren hor bukatu, bizilagunen kezak zirela eta, uztailean Udalak lokal horretatik

irtetzeko eskatu zien.

Azken hauek, Udalarekin berba egiteko idatziak aurkeztu dituzte arazoari irtenbide bat bilatzeko asmoz baina oraindik konponbide baten zain jarraitzen dute.

Irailaren 8an hasi ziren klaseak eta jende kopuru handia da arratsaldetan aerobic-a praktikatzen duena, goizekoa baino haundiagoa. Goian esandako moduan, Murubideko frontoian praktikatu dute azken egunotan.

Aerobica praktikatzen duen kide batek adierazi digunez, gogoz daude kirola praktikatzen jarraitzeko, "kalean egin behar badugu ere egingo dugu baina ezin dugu horrela jarraitu".

Agian, Kurtzebarri eskolan utziko diete lokala aurrerantzean, baina oraindik ordutegia zehazteko dute.



**Ezkontu**  
TABERNA

Mitarte 9 • Aretxabaleta • Tfnoa: 79 92 01

### Izozkiteki-Gozotegia IZOZKITEGI

Otalora, 11  
Tfnoa: 79 93 58  
ARETXABALETA



### MAPFRE

Aseguroak

Errekabarren, 3  
Tfnoa: 77 11 76









“O

n litzateke arma gordetzea... Bego, gaur uso-pasa duzue...” esaldia irakur dezakegu “Araba zabaldua” Alberto Schommeren, 1979. urtean argitaratutako liburuan. Arabari buruzko liburu honetan, gaur egun Aretxabaletan bizi den aramaiotar baten argazkia topatu dugu: **Felipe Bengoarena** hain zuzen ere. Urte sasoi honi bete-betean dagokion argazkia dugu, duda barik. Felipe, eskopeta sorbaldan, kartutxera gerrian eta ehiza txakurra lagun dituela azaltzen zaigu. Argazkiari goian aipatutako esaldiak laguntzen dio.

Udazkeneko egun batean, orain 20 bat urte, Aramaio aldean ehizan zebilela atera zioten argazkia. Kontatu digunez, garai batean ez zegoen horrenbeste ehiztari, ezta gaur egun mugitzeko dagoen erraztasunik ere, kotxea eta “todoterrenoaz” jendea ehiza lekuraino inguratzen baita.

Sasoi honetan, mendi aldera joan ezkerro, ez da zaila antzeko irudiak ikustea. Gure herrian, ehiza zaletu asko dago. Oporrak udazkenean hartzeko utzi eta makina bat lagun joanak izango dira honezgero ehizan, eskopeta ondo garbituta hego haizearen eta usoak noiz pasako zain izango dira.

Argazkia: “Araba zabaldua” Alberto Schommer-en liburutik hartua.



FELIX  
PAGALDAY

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33  
Etxekoa: 79 42 56

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa  
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea  
Tfnoa: 79 01 28



Galarza auzoa

Tfnoa: 79 24 58

ARETXABALETA

**BASTER-ALDE  
JATETXEA**

SASOIKO  
JAKIAK  
GIRO  
ONENEAN



# Hamaika gauza ikusteko...



jaiok gara: kotxea, abioia, gizona ilargian eta guzti hori gutxi balitz hemendik aurrera gura duenak Aretxagazeta sareen sarean aurki dezake: Interneten. Beraz, hemendik aurrera bertan irakur daiteke Aretxagazeta edo eta gutunak bertara bidali. Lehen hona etortzerik ez zuenak, ez du aitzakiarik.

Baina teknologia ez dago ohiturekin bananduta eta ohiturekin lotuta dauden San Migel jaiak pasatu berri direnez bertan gertatutako kontu batzuk ezingo ditugu aipatu barik utzi.

Produktu biologikoen azokan 17 postu izan genituen, horietako bat Kurtzebarri eskolak jarritakoa. Irabazlea, **Tomas Larrañaga** antzuolarra izan zen, 2. Atxabaltako **Jose Lonbide** geratu zen eta 3. **Peio Rubio** elgoibartarra.

Patxaran lehiaketan, berriz, **Salva Rodrigex** atxabaltarra izan zen irabazlea. Kasu honetan gauza xelebrea gertatu zen, berak aurkeztu zenik ere ez zekien. 2.a **Irene Zarraoa** eibartarra izan zen eta 3.a beste atxabaltar bat: **Ana Mari Aretxaga**. Beraz, Atxabaltan

patxarara ez da edan bakarrik egiten, egiteko ere jende trebea dago.

San Migel txirindulari lasterketa, **Iñaki Roibalek** irabazi zuen. Lehen atxabaltarra **Oier Garro** 6. postuan sartu zen. Lasterketa honetako bitxikerietako bat bi errumaniarren partehartzea izan zen. Beharbada Craioveanuren lagunak izango ziren.

San Migeletako kontuekin jarraituz, esan behar da Mus txapelketa **Roberto Ortiz** eta **Benito Labradorrek** irabazi zutela. 2. **Luis Mari Cardoso** eta **Xabier Jausoro** geratu ziren, 3. **Regino Merino** eta **Alfonso Cardenal**.

San Migelak alde batera utzita eta negua gerturatzen ari den honetan, **zinea** ere berriz hastekotan dugula esan behar da. Eta ez hori bakarrik, gabonetan ikus-entzunezko infrastruktura berrituko da. Dana dala, pipa eta gozoki zaratekin ere zerbait egin beharko da.

Galtzear dagoen ohitura baten berri ere izan dut. Degurixan osterara ere txondorra piztu dute. Arduraduna **Jesus Etxabe** izan da oraingoan. Ea lan txukuna egiten duten.

Bitxikeriekin jarraituz, aurtan kilometroak 97ko kantuari ahotsa jarri diotenak Txoronpio, Pantxi eta Pantxo izan dira. Talde honetakoa dugu **David Errasti** "abade" ezaguna.

Eta oraindik bitxiagoa den kontu batekin amaituko dut. Udaletxean egoera xelebrea aurkitzen dugu. **Juan Antonio Rodrigex** alkatea eta **Adolfo Etxebarria** alkate ordea gaixorik daude eta orain **Iñaki Pierruguesek** betetzen ditu alkate lanak. Denbora luzea pasatu dugu ikusi barik. Orain osterara ere hasi da udaletxetik agertzen.

Hamaika gauza ikusteko...

A R E T X A Z O K A

## LANA

- Kurtzebarri eskolak soinketa erritmikorako irakasle bat behar du. Harremanetarako deitu 79 00 49 telefonora.

## ETXEBIZITZA

- 160 m<sup>2</sup>-ko pabiloi industrialia alokatzen da, Aretxabaletako Basabe poligonoan, interesatuak deitu honako telefono hauetara: 79 28 41-79 74 37.

- Eskoriatzan etxebizitza salgai. San Pedro kalea 12 6ezk. Tfnoa: 91 50 80 320 (Madrilekoa) Leandro Mateosegatik galdetu.

- Araba Ibilbidean etxebizitza salgai. Telefonoa: 79 46 24.

- Gasteizen pisua osatzeko pertsona bat behar da. San Viator kalean (Avenidan). Alkilerria 22.000 pta. Interesatuak deitu 79 00 09 telefonora (Maider).

- Burgosen pisua osatzeko ikaslea behar da. Janari eta etxeko lanak egiteko pertsona bat daukagu. Harremanetarako: 79 51 10 (Saioa) /79 28 05 (Onintza).

## DENETARIK

- Aretxaletan ileapaindegi mixtoa alokagai dago. Solarium eta edertze aretoa ditu. Lokal argia da. Herriaren erdian. 60 m<sup>2</sup>takoa. Instalazio guztiak ditu eta funtzionamenduan. 77 12 70-79 94 39.

- Renault 4-a salgai. Oso egoera onean eta prezio onean. Interesatuok deitu gaeuz telefono honetara: 79 23 69.

- Animalien ongizateak kezkatzen bazaitu, jarri harremanetan ATEArekin (Animaliei Tratu Etikoa ematearen aldeko Elkar-tearekin) Gasteizko 334 posta-kutxatilan edo-ta (945) 13 60 35 eta (945) 12 05 48 telefonoetan.

- "Zero-Sette" soinu txikia salgai. (4 ahots). Berria. 169.000 pta. Tfnoa: 945 27 44 26.

**Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu deitu 79 01 05 telefonora. Dohainik da.**






HITZ GEZIDUNAK

	Jaharia ontzekoa Gu orain Ibil	Altzairuzko tresna * izena	Mapa- liburua Nekazaritza- ko tresnak	Narda, figura Zer
	Zoritzareiz			
	Arkua			Potasioa Baita
Itxura gutxi aldatu Palestina- ko herria	Besterena hartu Estufasun	Ameriziara Zintzo (Al- derantz	Ondo jana Pisua	
		Adimenez argi Lapurketa		Bukaerako
Jatorrena Ingelesez txoria			Ugaztun karraskaria (Lepus- timidus)	Bizkaiko herria Kantu- -mota
		Bigarrena Kontso- nantea	Meate- giletan Puntu in- terresgarria	Mila Parrilbo- bukaera
Aida dallekeena 61				
	Gatik behera zuzen	Sufreia Arrapa- ladan	24 biturkua	Baki Saudi Arabiariko hiritburua
Zabar- keria Arau- -multzoa				Bakala Udabata
				H <sub>2</sub> O Burdina ekoizten den lekua
Asto bihurtua Bururatu			Oleri- -mota Inter- jekzioa	
	Zilindro- -itxurako argizariak Bakala			
Momentua		Lehena	Arto- -linez egindako opil	

M E A

HABE

JEROGLIFIKOA




HABE

Galduek gara!

\* Soluzioak  
18. orrialdean

## Liburutegiko txokoa



### Letrak kalekantoitik Anjel Lertxundi

Ilustrazioak: Antton Olariaga  
Aberdania, 1996

Liburu honetan Anjel Lertxundik hiztegi modura bildu ditu hitz bitxiak, esaerak eta hitz jokoak ere bai. Honela ahozko hizkuntzaren eta esaera herrikoien berreskuratze lan handia egin du alde bate-tik eta idatzizkoan oinarritutako beste datu pilo bat ere jaso ditu, hiztegi modura antolatuta dagoen, baina literatura bezala irakur daitekeen liburu berezi honetan. Hizkuntzari bizitasuna ematen dioten elementuak dira jaso dituenak eta bai hitz egiterakoan bai idazte-rakoan ere oso baliagarriak dira hizkuntzaren aberastasunerako. Lertxundik eginak ditu aurretik Euskal humorearen antologia bat "Horrela bizi bagina beti" Erein, 1991 eta "Piztiaren izena" Alberdania, 1995 liburuan ere Glosa edo hiztegi modura jaso zituen deabruarekin zerikusia duten hainbat hitz eta espresio.

Joseba Lopez de Armentia

## LEBER

GABINETE PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosi ondorengo aholkularitza.
- Arlo desberdinak errehabilitatu-indartu (lenguaia, arrazonamendua...)
- Eskolako edozelango zailtasunetan laguntza.
- Ikasten laguntzeko teknikak.

Ordutegia:  
3,30etatik 7,30etara

Tfnoa: 79 56 98  
Basabe poligonoa (Industrialdea)  
ARETXABALETA



**M**obiliario  
**ARENAZA**

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07  
ARETXABALETA



**Aholkularitza**

Basabe Industrialdea  
**Aretxabaleta**  
Tfnoak: 79 88 75  
79 75 99

**Modan dagoen guztia**  
Iparragirre, 4  
Tfnoa. 79 21 24

**Orain likidazioan**

**URRIA**

12

domeka

**ELOSUKO MENDI FERIA**

Bergarako Elosu auzoan.

**ZIKLOTURISTEN IRTEERA**

Aretxabaleta-Bergara-Antzuola-  
Bergara-Arrasate-Aretxabaleta-  
Arlaban-Dorletako Ama.

13

astelehena

**ODOL BANKUA**

4,30etatik 8,30etara bitartean odola  
eman nahi dutenek Osasun zentrutik  
pasa beharko dute.

18

zapatua

**ELIZATEETATIK IBILALDIA**

Eskoriatzako Udalak inguruko elizateak  
ezagutzeko ibilaldia antolatu du.  
Arratsaldeko 4etatik aurrera, gure  
etnografia eta kulturari begira  
interesgarriak diren eraikuntzak  
bisitatzeko aukera izango da. Parte  
hartu nahi duenak Eskoriatzako kultur  
etxean urriaren 14a baino lehenago  
izena eman beharko du.

Irailaren 15etik urriaren 30era **gri-  
pearen aurkako kanpaina** martxan  
da 65 urtetik gorakoentzat edo adin  
horretatik behera gaixotasun  
kronikoren bat dutenen kasuan.  
Interesatuok osasun zentrutik pasatu.

JEROGILFIKOA: Ez dago itenbiderik.

O	T	V	A	N	E	N	O
K	L	E	N	D	K	A	N
A	D	O	A	T	O	A	S
R	U	R	A	V	U	T	E
E	A	R	I	A	K	E	R
I	K	I	S	I	X	I	A
A	R	I	A	G	A	R	I
M	E	A	M	E	B	I	R
A	E	N	A	N	O	N	E
A	R	A	Z	A	L	E	N
A	S	E	A	M	K	D	A
K	A	V	A	V	U	Z	U
Z	E	V	L	V	M	V	L
A	Z	L	I	G	V	B	L
N	A	L	G	A	L	A	N

**SOLUZIOAK**

HITZ GEZIDUNAK

**ARETXABALETAKO TELEBISTARAKO IZEN LEHIAKETA**

Ze izen ipiniko zenioke Aretxabaletako telebistari?

Bota zure erantzuna tabernetan horretarako dauden buzoietan edo Aretxagazetako buzoian, urriaren 27a baino lehenago.

Saria: bi pertsonendako afaria. Aretxagazetan jakitera emango da.

**Aretxabaletako telebistarako izen lehiaketa**

Telebistaren izena .....

Izen-abizenak .....

..... Telefonoa: .....

**ARETXABALETAKO KOMUNIKABIDEAK-LORAMENDI**

Bota zure erantzuna Aretxagazetako buzoian edo tabernetan horretarako dauden buzoietan



## Ikastaroak

## ESKULAN IKASTAROA

Loramendi elkarteko Tril emakume taldeak, eskulan ikastaroa antolatuta du. Ikastaroa Rosa Del Aguilak emango du eta urriaren 3. astetik aurrera hasiko da. Ordua eta eguna ikastaroan parte hartuko dutenen artean erabakiko da. Guztira 10 lagunek parte hartu ahal izango dute. Izen ematea, urriaren 3tik aurrera egin beharko da Loramendi elkartean 3.000 pezeta ordainduz. Ikastaroaren iraupena 30 ordutakoa da, astean egun batez 2 orduko saioak egingez.

## MARGO IKASTAROA

Margo ikastaroa, astelehenetik ostegunera bitartean, 6etatik 8etara. Oleoa, akuarela, marrazkiaren oinarri teknikoak, etabar. 3.500 pezeta hilean. Izen emateko kultur etxeko margo gelan egin daiteke. Irakasleak Paulin Bengoa eta Mikel Arroiabe dira.

## Margo ikastaroa

Oleoa, akuarela, marrazkiaren oinarri teknikoak, etabar. Astelehenetik ostegunera bitartean, 6etatik 8etara. Izen ematea kultur etxeko margo gelan.

## IRRATI TAILERRA

Gazte bulegoak eta Arrasate irratia antolatuta, irratiaz lotutako bi ikastaro emango dira: **irradi kontrol ikastaroa** (teknikoa) eta **erredakzio eta lokuzio tailerrak**.

Irrati kontrol tailerra urriaren 14an hasiko da eta abenduan amaituko da.

Martizenetan emango da arratsaldeko 7etatik 9,15etara.

Erredakzio eta lokuzio tailerra urriaren 15etik aurrera hasiko da. Eguaztenetan emango da 7etatik 9,15etara. Matrikula 3.000 pezetakoa da. Ikasle eta langabe-tuentzat 1.500 pezeta. Izen ematea gazte bulegoan egin behar da.

Informazioa: 77 00 65 telefonoan.

## Erakusketak

KULTUREN ARTEKO  
HARREMANAK ETA GIZA  
ESKUBIDEAK

Bergarako kultur etxeko erakusgela aretoan, "Mugen gainetik" gobernuz kanpoko elkarteak antolatuta erakusketak. Urriaren 20tik 24ra.

BEHARREZKO  
TELEFONOAK

## Aretxabaleta

• Almen	71 49 64
• Aretxagazeta	79 01 05
• Basotxo	77 09 81
• Euskaltegia	79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	79 10 00
• Hezibide Elkarte	79 31 32
• Industrialdea	79 62 80
• Kiroletxea	79 64 61
• Kultur-Etxea	79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	79 00 49
• Leniz Lanbide Esk.	79 79 00
• Liburutegia	79 10 00
• Loramendi E.E.	77 09 70
• Ludoteka	79 05 81
• Murrukixo M.E.	79 93 74
• Musika Eskola	79 36 50
• Ortzadar	79 01 84
• Osasun zentroa	79 74 58
• Otalora	79 79 99
• Parrokia (Bulegoa)	79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	77 03 77
• Postetxea	79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	79 17 00
• Taxi Geltokia	79 22 33
• Udaltzainak	79 10 00
• Udaltzaingoa	79 10 52
• Urats Gain	79 99 11
• Urgentziak	77 10 43

## Udaltzaingoa

• Arrasate	79 14 39
• Bergara	77 91 06
• Eskoriatza	79 03 22
• Oñati	78 04 11

## Denetarik

• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	79 53 00
• Ertzaintza (Arrasate)	79 71 99
• Gurutze-Gorria (Bergara)	76 55 76
• Larrialdia (Arrasate)	77 10 43
• Pesa (Arrasate)	79 14 19
• Renfe (Gasteiz)	23 20 20
• Renfe (Zumarraga)	72 15 15
• SOS Deiak	088
• Suhiltzaileak (Oñati)	79 28 00

CONSUM **EROSKI**

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8  
Tfnoa: 79 19 34Aralar z/g  
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABAleta

Basabe Poligonoa A-15  
☎ 79 34 28  
ARETXABAleta

ITURGINTZA


J.J

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87



sofa  
leku

a, eme... interiores



STOKKE  
DESIGNER FURNITURE



centro  
hogar  
muebles



## Amuebladora Mondragonesa

**a. eme. interiores**, Garibai, 9 ■ ARRASATE ■ Tel.: 79 15 03  
**a. eme. sukaldeak**, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92  
**centro hogar muebles**, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92  
**sofa leku**, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92